

II.- AURRERAPENAREN EDUKI FORMALA, AZTERLANA BARNE.

Aditzera eman den moduan, honako Azterlan hau Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapenaren parte da, eta honakoa da Aurrerapen horren eduki formala:

* "I. Informazioa eta diagnostikoa" liburua.

Berraztertze lanen lehen fasean egin diren informazio eta diagnostikoko dokumentuek osatzen dute. Honakoa da dokumentu horien zerrenda:

- Udalez gaindiko lurralde-antolamenduko informazioa eta diagnostikoa.
- Udalerriko ingurune fisiko eta naturalari buruzko diagnostikoa.
- Nekazaritza-ustiapenei buruzko diagnostikoa.
- Lurzoru urbanizaezina Plan Orokorra indarrean izan den zortzi urteetan.
- Demografia eta bizitegi-parkea.
- 1995eko Plan Orokorreko bizitegi-garapenak eta ekonomia-jardueren garapenak Plan Orokorra indarraldian izan den zortzi urteetan izan duen prozesuari buruzko diagnostikoa.
- Mugikortasunari eta garraioari buruzko diagnostikoa.
- Zerbitzu-azpiegiturei buruzko diagnostikoa.
- Plan Orokorraren aurreikuspen ekonomikoei eta programazioko aurreikuspenei buruzko diagnostikoa.
- Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berraztertzeari buruzko diagnostiko orokorra.

Haatik, dokumentu horietan adierazten den moduan, data jakin batean landutako dokumentu horietako batzuen edukia berregokitu eta osatu egin da, dokumentu horiek aurkeztu eta eztabaidatu diren hainbat forotatik eta lan-mahaitatik gaineratutako informazioa eta iradokizunak aintzat hartzearen ondorioz.

Horrez gain, Hirigintza Ondare Katalogatuaren Plan Berezia lantzen ari da. Hortaz, Plan hori lantzeko zereginetan gaur arte egindako lanetan dute jatorria proiektu honetan –arlu horri dagokionez– barne hartzen diren irizpideek eta helburuek.

* "II. Plangintzako irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak" liburua.

Plan Orokor berria lantzeko ondorioetarako proposatutako plangintzako irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak barne hartzen ditu, jendaurrean jarri ondoren. Zehazki, honako dokumentu hauek osatzen dute:

- "1. Memoria" dokumentua.
- "2. Planoak" dokumentua.

* "III. Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana" liburua.

Aurreko "II." liburuan barne hartzen diren plangintzako irizpide, helburu eta irtenbide orokor horiek ingurumenaren gainean duten eraginaren ebaluazioa egiteko beharrezko aurreikuspenak biltzen ditu. Liburu horrek, bestalde, honako bi dokumentuak ditu:

- "1. Memoria" dokumentua.
- "2. Planoak" dokumentua.

Memoria hori esku artean daukagun honako memoria da, hain zuzen ere.

Adierazitakoaren arabera, hiru Liburu horiek eta dagozkien dokumentuek eta aurreikuspenek osatzen dute Aurrerapen horren proiektu bateratu bakarra.

Osotasunaren ikuspegi bateratuak osotasun horren tratamendu osoa eta barne-hartzailea justifikatzen du, eta, kasu honetan, ondoren aditzera ematen diren jarraibideei, besteak beste, erantzuten die.

Batetik, Liburu bakoitzak, eta dagozkion dokumentuek, egiteko zehatza dute proiektuaren osotasunean.

Bestetik, Liburu bakoitzaren berezkoa eta guztien baturaren osotasuna artikulatzeak guztia sare baten modura behar bezala koordinatzea eskatuko du.

Azkenik, proiektu bakarraren ideia horrek ez du eskatzen, ezta justifikatzen ere, Liburu edo dokumentu jakin batean oso-osorik errepikatzea beste liburu edo dokumentu batzuen berezko aurreikuspenak, beste horietan jada jaso diren aurreikuspenak, alegia. Errepikatze hori justifikaziorik gabekoa izateaz gain, korapilotsuegia eta irakurtzeko eta ulertzeko zailegia bihurtuko luke proiektua. Hori dela eta, Liburu edo dokumentu jakin batek beste liburu edo dokumentu bateko berezko datuak eta aurreikuspenak aipatu edo erabili nahi dituzenean, datu edo aurreikuspen horiek laburtuko dira, eta datu eta aurreikuspen horiek zein liburu eta dokumentutan espresuki agertzen diren jasoarazi beharko da.

Ildo horretan, Azterlan honen edukiaren zati handi bat "I." eta "II." Liburuetan barne hartzen diren aurreikuspen batzuen laburpena, edo oroigarri hutsa, besterik ez da. Oroigarri horrek, haatik, Azterlanaren osotasuna ulertzeko eta irakurtzeko aukera emango duen iritsiera izan beharko du. Edonola ere, osotasunaren ezagutza zabalagoa izan nahi duen edonori beste liburu horiek ere irakur ditzala gomendatu behar diogu.